

Ze barri?

2000.ko
AZAROA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

44 zkia.


Urlatik Landetara

Adi!

Abenduaren 1etik
aurrera, astero,
bailarako
informazio guztia
zure eskura.

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA



Musakola Auzoa, z/b 20500 ARRASATE
Tfnoak: 943 79 18 80 / 943 79 21 25 / 943 79 24 11 Faxa: 943 79 21 25




Udalaitz, S.L.



Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

**ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGIAK**



Araba Ibilbidea, 17
Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano
Iñigo Biain

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99


ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Arrastoak agerian



Aspaldion, Madril aldetik dugu albiste onik. Frontea gainean dugu bai eta ez dago giro makur honek hobera egingo duen itxurarik. Egonean eta eurena eginez lasai daude eta. Oraingo honetan ere, halaxe jokatu dute eta, euskaldun izanik, amorratu egiten nau Gobernu espainiarraren jarrerak. Garbi dago, frankoren heriotzaren 25. urteurrena pasa berri den honetan, caudilloaren ondorengoek ere portaera inposatzaile bera jarraitzen dutela:

Madrileko Gobernuak gure hezkuntza sistema hankaz gora jartzeko asmo horretaz ari naiz. Betiko kontua, baina, beti guri izorratzeko izaten dena. Egia da bai, betiere, Madril aldetik gai honi buruz entzun ditugun berbak, laudorioak baino gehiago izan direla, irainezkoak eta gutxiespe-nekoak. Tartean, gezurrak ere bai, barra-barra. Azken hau esan duten bezalaxe: EAEn eta Nafarroan (beraiek horrela bereizten dute) hezkuntza sistema kalitate txarrekoa ei da eta ez omen dira oinarrizko zenbait kontzeptu irakasten. Gaixoak gu, urte guzti hauetan (frankismoa lurperatu zenetik akaso) ignorantzia bizi izan ote gara ba? Harritzekoa, bat batean, euskal gizartearen hezkuntzaz, horrela, arduratu nahi izatea.

Azkar asko bilatu omen diote gainera, konponbidea. Amen batean, datorren ikasturterako ezarriko omen dira aldagetok DBH eta Batxilergo mailetan. Egingo dituzten aldageta guztiez gain, euskaldunoi eztenkadarik zorrotzena historiako irakasgaiak emango digu, ez bairik gabe.

"Espainiako Historia" irakasgai berria ez dute ba ezarriko. Gainera, komunitate autonomo guztietan berdin irakatsi beharko da. Horra hor, frankismo garaian (nik bizi izan ez nuena, baina, zoritxarrez, gure gizartean orbain sakonak utzi dituen) inposatu nahi izan zen Espainia bakar eta homogeneoaren adibide garbia.

Eta honen guztiaren aurrean, euskaldunok ez al dugu zer esanik? Doña Pilar Castillo esan zuenez, komunitate autonomoetako ordezkarietekin kontsentsuz hartutako erabakia izan ei da. Berriz ere, berba finagoak erabili arren, inposizio garbia.

Erabaki honek gure hezkuntza sistemari egin diezaiokeen kaltea ikaragarria da. Baina, guzti honen inguruan, bada arduratzen nauen beste kontu bat ere. Hain zuzen ere, Gobernu espainolaren jarrera lotsagabe eta era berean ausart horrek, garbi erakusten du, egun gure autonomi erkidegoarenak diren ezkuduntzak gobernu espainolak zenbateraino errespetatzen dituen. Aznarren gobernu lapurreta garbia egiten ari zaio Eusko Jaurlaritzari eta ondorioz, euskal gizarte osoari. Izan ere, ez al da egia akaso, azken urteetan D ereduak nabarmen gorantz egin duela? Beraz, euskaldunon gehiengoak egin dugun hautua albo batera utzi nahi du Madrilek.

Pertsonalki, gogoeta hauxe datorkit niri burura: Aznarren gobernuak autoebaluzazio sakon bat egin behar lukeela iruditzen zait. Izan duen jokabidea ez da batere zuzena, baina, eta, gainera, gezurretan ari da. Euskal gizartean dugun hezkuntza sistemari, kalitate txarrekoa dela iristen dio, baina, berak, kadukaturik dagoen sistema ezarri nahi du. Frankismoan ezarri zen sistema, espainolitate indartu eta Espainia bakarraren irudia saldu guran inposatu zena, baina, bistan denez, porrot egin zuena. Beraz, hitzak neurtu beharko lituzkete eta bide batez pentsatu benetan zer den kalitate txarrekoa.

Lorea Agiriano

UDAZKEN HOTZARI... ...UDAZKEN KULTURAL BEROA

Aurten ere Udazkenak ez digu hutsik egin, eta urtero gertatzen den bezala, urtaro koloretsu honek Udazken Kulturala ekarri du Eskoriatzara aurten ere. Askotan dira ikusi ditugun ekitaldi, hitzaldi, irtenaldi, eta abar luzea. Eta oraindik ez da amaitu...

Aurreko alean ere iragarri genizuen aurtengo Udazken kulturala bete bete eginda zectorrela. Urrian izan ziren ekitaldi guztiei Azaroan izan diren guztiak gehitu behar dizkiegu, eta ez dira gutxi izan.

Azaroaren 3an Mila Unzurrunzaga margolari oñatiarrak Kultur Etxeko aretoan bere 50 lanen erakusketa inauguratu zuen, hilaren 19a bitartean ikusgai izan zena.

Hurrengo egunean, Larunbata, III. Herri Olinpiadekin batera emakumeen inguruko jardunaldiak ospatu ziren HUHEZIKo fakultatean, benetan arrakastatsua izan zelarik, bat baino askoz gehiago tokirik gabe gelditu zelarik.

Mikolojiak ere izan du bere txokoa Eskoriatzako Udazken Kultural honetan, eta horrela,



XI. Mountain Bike ibilaldia, 128 partaiderekin, arrakastatsua



Mairilu Unzurrunzaga margolaria eta Emakumeen inguruko jardunaldiak

Azaroaren 9an, Ostirala, Juan Luis Lekuona izan genuen Kultur Etxean, Aranzadi elkartereko kidea bera, perretxikoen inguruko berri ematen. Sapatuan, Ostiralean ikasitako guztia praktikan jartzeko aukera izan zen mendira antolatutako ibilaldian. Eta Sapatuan bildutako perretxiko guztiak ikusgai izan ziren Igandean Kontzejupeian. Aipatu trufak izan zirela jendearentzako produktu mikolojikorik harrigarriena.

Hitzaldiak ere izan dira, besteak beste testamentu, heredentzia eta hondasunen banaketaren ingurukoa, edo eta Fermin Lezeta basozain eskoriatzarrak eman zuen diaporama, Hego Amerikako bere bidai baten berri emanaz.


Baina gazteenentzako ere izan da Udazkenik, horra hor, bestela, Urriaren 28an Mendiolan Ezkurtxorekin izan zuten zita, ipuinak, diapositibak, eta beste hainbat ekitaldirekin; edo Azaroaren 14an Tortolis Ludotekan izan zen Rosa, kontaidazu ipuin bat txontxongilo emanaldia.

Baina badira oraindik, Zer Barri?ren ale hau kalean denean, zer ikusirik Udazken Kultural honetan: kontzertua, antzerkia, ... Aspertzeko aitzakiarik ez dago, beraz.



Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



OTZETA jatetxea

Aranburuzabala kalean
ireki berria

Tfnoa.: 943 71 55 07

HUHEZI FAKULTATEA LITERATURAZ JANTZI ZEN ASTEBETEZ

Euskal Herriko literaturan izen esanguratsurik badago, zihur Azaroaren 6a eta 10a bitartean Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean izan dela. Egia da ez zeudela diren guztiak, baina izan zirenak euskal literaturaren gorenean direla ukazina da. Hitzaldiak, emanaldiak, eta erantzun bikaina.



Gerardo Markuleta, Arantza Ozaeta eta Kirmen Uribe

Azaroaren 6an, aste berriarekin batera, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean antolatutako Literaturastea hasi zen. Andoni Egaña izan zen aste honi hasiera emateko ardurua izan zuena, eta ederto eman ere, gainera. Bertsolari ezagunak, bere hitzaldiaren izenburuak garbi esaten duen moduan

(*Pertsonaiak nola sortu*), pertsonai literarioak sortzeko erak azaldu zizkigun. Irakasle onek bezala, arbeltxoa erabili zuen bere ikasleek dena uler zezaten.

Asteartean Gerardo Markuleta, Kirmen Uribe, Arantza Ozaeta eta Iban Freire poetaen txanda izan zen. Hauek poesiaren inguruko gogoetak aineratu zituzten, beti poesiaren

laguntzarekin, *Poesiaren kontra, poesiaren alde* ikuskizunean. Poesia entzuteko modu entretenigarria benetan. Asteazkenean Literaturasteak bere izar haundienetako bat zuen iragarrita, eta horrelakoetan izaten den bezala, ez zuen hutsik egin. Espido Freire laudiotarrak ari gara, iazko Planeta Sariaren irabazlea. Neska honek bere gaztetasunaz, baina batez ere, jendearekin konektatzeko duen erretasunaz txunditu

gintuen. Jendea etengabe engainatuz *Idazlea eta errealitatea* irakatsi zigin.

Ostegunean Joxean Artze gerturatu zen Eskoriatzaraino, eta poesiaren maitaleek euskal poesigintzako gorenean dagoen Artzeren lana dastatu ahal izan zuten. Artzek Hitz hutsekin ahaztua gogoratu poema emanaldia bota zigin, eskenografia txiki baina lirainarekin (*Kandela mordo*, mahaitxo bat eta oheondoko lanparatxo hoietako bat).

Eta nori tokatuko Literaturaste honi agurra ematea?

Berardo Atxaga egokia ote? Ba bai, eta benetan agur bikaina gainera. Bernardok ere errealitatea eta idazlea aztertu zituen, eta idazten ez ezik, ahoz komunikatzen ere bikaina dela azaldu zuen berriro.

Aipatu behar, antolatzaileen pozerako, jendeak emandako erantzuna, lehen egunetik, azkenera.



Espido Freire



Bernardo Atxaga

Argitalarpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa *gizarte-ekintza obra social*



Pub ALDATZ

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

UDAZKEN OLINPIKOA EGASEN KONTURA

Eskoriatzako Gazte Asanbladak (EGAS) urte olinpiko honetan ez du atzera gelditzerik nahi izan. Sydneyko Joku Olinpikoen ondoren, Sydneyn bertan, Joku Paraolimpikoak ospatu ziren, euskaldunontzako hain oparoak izan direnak, eta hauek bukatzen ziren aste berean Eskoriatzan III. Herri Olinpiada hasi zen.



Olinpiadek utzitako irudiak ikusgarriak izan dira aurtengoan ere, inguruko argazkiek garbi uzten duten moduan. Umore bikaina eta kiroltasuna izan dira nagusi 2000ko Herri Olinpiadetan.



EGASek entolatutako aurtengo jokuetan kiroltasuna izan da nagusi, eta errekor mundialik gauditu ez bada ere, utzi dizkigun irudiak benetan ikusgarriak direla ezin ukatu.

III. Herri Olinpiada hau Urriaren 28an hasi zen, bizikleta ganean egindako poteoarekin, eta ondorengo bazkari herrikoiarekin. Bukatu Azaroaren 4an egin ziren, baina bi asteburuetan hainbat joku/jolas ikusi ahal izan genituen, besteak beste irudietan ikus ditzakezuen *Txakurraren jokua* (ganean) eta *Txokolate eta txurroena* (goian eskubitarra). Azkenean garaile atera zen ekipoa, eskumako irudian ikus dezakezuen, *Arkakuxoak* izan zen; *Altxorraren bila* jokua izan zen Joku Olinpiko hauetako azkena, eta bertan garbi utzi zuen garaileek beren nagusitasuna.

Baina Joku Olinpiko hauetako garaile nagusia, zalantzarik gabe, Eskoriatzako Gazte Asanblada bera izan zen, EGAS. Eta ordutegiaren kontuekin oso puntualak izan ez baziren ere, urrezko domina eurek merezi dute. Zorionak eta hurrengo urte olinpikorarte!



**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061




San Milixango artisautza azoka Leintz-Gatzagan

1993tik gaur arte urtero gertatu den moduan, aurten be, San Milixan egunarekin batera Artisautza Azoka egin zan hilaren 12an Leintz-Gatzagan.

Dorletako egunarekin batera, San Milixango Artisautza Azoka hau izango da, seguruenik, Leintz-Gatzagako herriarentzako urteko jai egun garrantzitsuenetakoa. Aurten ere, esandakoa baieztatuz, jende mordo horbildu zen Gatzagaraino. Aurtengo azokan 20 postu ikusi ahal izan dituzte haraino horbildutakoek, eta lehenengo aldiz postuetako batzu pilotalekutik kanpo ere izan dira.

Urteroko artisautzarekin batera, aurten aitzinako beste bi lanbide ere



Aurten pilotalekutik kanpo ere postuak ikusi ahal izan dira

ikusi ahal izan ziren: gatzgintza Uztailen zabaldu zen gatzaren ekomuseoan, eta txondorgintza, hau ere toki berean kokatua.

AUZOLANA

Urtez urte, beraz, gora egiten ari zaigu Leintz Gatzagako San Milixan azoka hau. Eta urtez urte hobetze horren arrazoï nagusia herrian bertan bilatu behar dugu, herritarrak baitira azoka honi, eta Gatzagako beste hainbat ekitaldiri arnasa ematen diotenak. Gure ondoko herritxo hau, beraz, auzolanaren eta benetako herri izpirituaren eredu bezala jarri beharko genuke. Zorionak, beraz, Leintz-Gatzagako herriari, eta batez ere, gatzagar bakoitzari.



Taloea eta sagardo basokadatxoa ere ezinbestekoak dira urtero.



bedardenda

Tfnoa.: 943 714327
ESKORATZA

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK
EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

Ze barri? ere, garaiekin bat eginaz, modernotasunez jantzi nahi izan da, eta eskura ditugun baliabideak erabiliz, ahal den neurrian behintzat, eskoriatzar guztiei ateak zabaldu. Beraz, ideia, kexa, komentario, txiste, albiste edo beste edozein bota nahi baduzu, korreo elektronikoz egin dezakezu ondoren ikusiko duzun helbide elektronikora:
axtroki@topagunea.com

B a d a t o r

Eskualde osorako astekaria datorren astean argitaratuko da

Goienkaria!

Datorren ostiralean, abenduak 1, komunikabide berria jaioko da: Goienkaria, Debagoieneko lehenengo astekaria. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen biltzen diren bailarako euskara elkarte guztien ekimenari esker, eskualde osorako egindako astekaria izango da.

Goienak urte honetan bailara osorako bi komunikabide abiatzea zuen helburu. Batetik, Goiena Telebista, gaur egun, oraindik, Leintz aldean bakarrik ikusten dena, eta laster Antzuolara ere zabalduko dena. Bestetik, Goienkaria: Aramaio, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola eta Elgetako etxeetan doan banatuko den egunkari itxurako astekaria. “Gure asmoa Goienkaria lehenago abiatzea zen, baina idatzizko komunikabideen gaineko hausnarketa sakona egin dugu, eta horrek epeak atzeratu egin ditu. Edozelan ere, urte amaieran jaioko den arren, etorkizunean prentsa alorrean egin nahi dugunaren oinarriak finkatu ditugula esango nuke. Uste dut merezi izan duela gauzak ondo egiteko astia hartzea”, esan digu Goiena elkartearen Zuzendari Nagusi Mikel Irizarrek.

HERRIETAKO ESKUALDEKO INFORMAZIOA

Bailarako tokian tokiko aldizkariak urteak daramatzate informazio lokala lantzen. Arrasate Press, Aretxagazeta, Berrigara, Ze Barri? (Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga), Goibekokale (Elgeta), Kontuola (Antzuola) eta Kontzejupetik (Oñati) informazioaren erreferentzia dira, baiokita bere

esparruan. Baina, eskualde osoan banatzen den euskarazko idatzizko komunikabiderik ez dago. Hutsune hori betetzera dator Goienkaria. Horregatik, herri aldizkariaren osagarri izango da: hauek herriko berriak landuko dituzte eta Goienkariak, eskualdekoak. “Herriek egiten dute eskualdea, baina, era berean, eskualdea bera ere bada albiste sortzaile. Bestalde, badira herri guztientzako komunak diren erakunde, elkarte edo zerbitzuak, eta baita denentzako, aretxabaletarrentzako zein oñatiarrentzako, esaterako, interesekoak izan daitezkeen albisteak. Hori eutsi nahi diegu”, dio Eneko Azkarate Goienkariako zuzendariak. Eneko bergararra da eta

**Egunkari itxurakoa
izango da,
errotatiban eta
prentsa-paperean
inprimitutakoa**

**Ostiralero, 20.000
ale inguru banatuko
dira Debagoieneko
herri denetan**


zuzendaria izan da.

ZELAKOA IZANGO DA?

Goienkaria A3 formatukoa izango da, hau da, bailarako herri aldizkariak baino handiagoa, egunkariaren itxurakoa. Prentsa-paperean eta errotatiban inprimituko da. “Inprimatze kostuak askoz ere merkeagoak dira eta horrek egiten du bideragarri proiektua”, diosku Mikel Irizarrek.

Goienkariak 24 orrialde izango ditu eta bi zatitan banatuko da: lehenengoan, asteko gai nagusiak, albisteak, elkarrizketak eta kirolak jasoko dira; horiek batera, iritziak emateko eta eskelentzako tartea ere izango da. Bigarren zatian, Goienka2a izenekoa, kultura, aisialdia, agenda, zerbitzuak, denborapasa eta Goiena Telebistari buruzko informazioa jasoko da, besteak beste. Partikularren iragarki laburrentzat ere izango da orrialde bat. “Agendari eta zerbitzuen informazioari garrantzi handia emango diegu. Bailarakoaz gain, Gasteizeko eta auzo herrietako kultura agenda osatua jaso nahi dugu. Gainontzean, ohiko egunkari baten sailak izango ditu”, dio Eneko Azkaratek.

Diseinuari dagokionez, “astekari erakargarria eta irakurtzera animatuko duena egin nahi dugu”, diosku Goio Arana diseinu arduradunak. Goio Arrasate Pressko



Badator, bagatoz

Halaxe da. Izan ere, kontuan izan behar da Jaiotzear dagoen Goienkaria ez dela ez-dakit-nork kaleratutako astekari bat. Goienkaria Debagoiena bailarako herri komunikabideen eta euskera taldeen eskutik datorkigun hedabidea da, eta gu geu gara, herri bakoitzeko aldizkaria kaleratzen dugunok, beste proiektu honi behar beharrezkoa duen arnasa emango diogunak. Apustua gogorra da, eta etorkizuna ezjakina, baina guztion aldetik jarri beharrekoa jartzen bada, ziur gaude onuragarria izango dela zeharo bailara honetako. Ez da ahaztu behar, gainera, hauxe izango dela bailara osoa hartuko duen lehen komunikabide autoktonoa

Badakizue, beraz, aurpegi ezagunak dituzuela hedabide honen atzean dabilzanak. On egin Udazkenak eman digun fruitu berri honekin!



Iñigo Biain, Ze Barri? aldizkariko kazetaria

diseinatzaile eta maketatzaile izandakoa da urteetan. Orrialde batzuk, azala eta kontrazala, esaterako, koloretan inprimatuko dira. Gainerakoak, tinta bakarrean.

DEBAGOIENEN KAZETARIEK EGINA

Eskualdeko herri aldizkarietan lanean diharduten edo ibili diren kazetari, komertzial eta maketatzaileek egingo dute Goienkaria. Hauek Debagoieneko herri guztietako kolaboratzaileen laguntza izango dute: iritzi artikulua idazteko, marrazkiak edo ilustrazioak egiteko edota beste hainbat sailtan idazteko. Eneko Azkaratek dioenez, "jende askok egingo du Goienkaria, herri denetako jendeak, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu, aldizkaria interesgarriagoa egiteko. Funtzionamendua zaildu egingo du, koordinazio lan handia eskatzen



Gure eskualdean sei herri aldizkari banatzen dira gaur egun.



duelako, baina merezi duela uste dut”.

Goienkariaren egoitza nagusia Bergaran egongo da, Berrigarako erredakzioaren ondoan, baina Arrasate Press eta Aretxagazetarekin lotuta egongo da, sare informatikoaren bitartez. Etorkizunean, Oñatiko ordezkaritza ere lotzea da asmoa. Intranetaren bitartez, artxiboak, informazioa, argazkiak etab. konpartitzeko aukera izango dute ordezkaritzek.

ASTERO, ZUEN ESKURA

Goienkaria ostiralero banatuko da, doan, Debagoieneko etxeetan. Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten, bertako astekariekin batera. Beste herrietan, bakarrik aldizkaririk ez dagoenean eta aldizkariekin batera hauek argitaratzen direnean. 20.000 ale inguru banatuko dira. Beraz, ale kopururik handieneko euskarazko astekaria izango da. Herri denetan antolatuko dira banaketa taldeak, herritarrek ostiralero euren etxeko postontzietan jaso ahal izateko.

IRAGARLEENTZAKO EUSKARRI PAREGABEA

Goienkaria Debagoieneko ia etxe guztietan banatuko dela esan dugu. Beraz, bailarako zein bailaraz kanpoko merkatzaritza-etxe, dendari, enpresa eta abarrentzako euskarri paregabea izango da. Herri



Martxoko hauteskundeon biharamonean banatu zen Goienkaria bereziak harrera ona izan zuen

aldizkarien finantzaketa biderik nagusietako bat publizitatea da eta Goienkariarekin bide horri eutsi nahi dio Goienak. “Euskarri berri bat eskainiko diegu merkatari, enpresa edota erakundeei; hau da, Debagoienean nagusi izango den komunikabide batean publizitatea egiteko aukera eskainiko zaie. Nor bere herriko aldizkarian egitea nahiago dutenak izango dira, baina bere mezu edo eskaintza eskualde osoko herrietara zabaltzeko interesa dutenak ere bai. Bakoitzak aukeratuko du”, diosku merkatzaritza arloko arduradun Gotzon Arzelus bergararrak.

Egunkarira bidean

Lau dira Goienaren jardueraren arlo nagusiak: telebista, prentsa, irratia eta zerbitzu telematikoak. Landuen eta garatuen daudenak, telebista eta prentsa dira, nahiz eta egitasmoak bere osotasunean gauzatu barik egon oraindik. Lan-esparrua, oster, Debagoiena da.

Prentsa arloari dagokionez, hausnarketa prozesu sakon batean murgilduta izan dira aurten herrietako komunikabide eta euskara elkarteak. Eskualde osorako komunikabide bat abiarazi nahi da, baina herrietakoei eutsiz. Hori dela eta, epe batzuk zehaztu dira bailarako aldizkari denak astekari bihurtzeko. Abenduaren 1ean Goienkaria argitaratuko da eta eskualdeko gainerako herri aldizkariekin batera banatuko da, hauek kaleratzen direnean. Datorren urteko maiatzerako, berriz, gaur egungo herri aldizkariak birmoldatu eta A3 formatura aldatuko dira. Lau edizio lokal sortuko dira: Bergarakoa, Oñatiko, Aretxabaletakoa eta

Arrasatekoa. Bergarakoan, bertako, Antzuolako eta Elgetako berriak jasoko dira. Oñatikoan bertakoak. Aretxabaletakoan, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aretxabaleta bertakoak. Azkenik, Arrasatekoan, Aramaiokoak eta Arrasatekoak. Mantxetei edo aldizkarien izenei eutsiko zaie eta lau edizioak astero argitaratuko dira, Goienkariarekin batera. Beraz, informazio lokal eta eskualdekoa txertatuko dira produktu bakarrean.

Etorkizunean, egunerokoa egitea da Goienaren helburua, baina horretarako bideragarritasun plana egin behar da: finantzaketa, banaketa, langileak etab. ziurtatu behar dira. Finantzaketa modu berriak eta eguneroko banaketa zelan egin aztertzeko, bi pertsona hartu dira. Datorren urteko udazkenerako erabaki nahi da egunkarirako urratsa eman edo ez.

GAIA

Katekesia, eta bera banatzearen arduraz...

Jakin banekien Eskoriatzako parrokiak katekesia emateko moduetan aldaketak sartu dituela, geurean bertan ere izan du eta, erabaki horrek eragina. Ez nekiena zera da, funtzionatzeko modu berriak kezka, demanda, eta neurri batean, haserrea ere eragin dituela hainbat gurasorengan.

Bada, ni neu, behintzat, guztiz bat nator abadearekin edo neurria ezartzea erabaki duenarekin. Erljioa, berau edozein delarik, erlijioan bizitzea, erlijioa sentitzea eta sinestea..., irakatsi barik erakusten den zerbait delakoan nago, agerian dagoelako ikusarazten eta egunero biziaren biziaren dena, alegia. Eta hau, inon baino hobeto, etxean egiten da, neska-mutikoendako eredurik maitagarriena eta eraginkorra gurasoen delako, eta ez abadearena edo bere borondate on guztiarekin katekesia azaltzen dabiltzan andreena.

Orrialde hau norbaitek irakurriko balu, honezkero pentsatzen hasia legoke egundoko kontraesanean nabilela, ni neu honen inguruko eredurik kaskarra izaki, ondo asko baliatu naizelako "inpartitutako" katekesiaz alabaren Jaunartzearen prestakuntza delegatzeko. Baina, eta erlijioaz gabiltzala, bekatari izateak ez dit eskubiderik kentzen pekatua salatzeke, eta horretan jarraituko dut.

Zalantza izpirik ere ez daukat. Baloreen eta sinemenaren hezkuntza delegatu ezinezko zerbait da, eta katekesia bakoitzak berean erakutsi barik beste norbaitengan irakas diezaien jareitten dugunean, delegatzen gabiltza, eta ez, dagokigun moduan, erantzukizunari aurre egiten. Gainera, konbentzio sozialengatik, gainontzeko ume guztiek ere egiten dutelako, "bestela zer esango dute, ba"-gatik, eta bide batez, astean behin ordubetez "aparkatuta" edukitzeagatik neska-mutikoa katekiza dezaten bidaltzen zutenek oraingoan jai daukate. Edo bestela, lanean hasi beharko dira. Erljioa benetan bizi badute, arazorik gabe erakutsiko diote seme-alabari etxean bertan. Eta ahaleginak merezi ez duela uste badute, ba, paso egin dezatela, baina haserreak alde batera utzi eta errua abadeari leporatu barik, mesedez!

TENTAZIOA. Katekesiak. Hau gaia hau, ni bezalako aho-bero batentzako!. Integrismo hutsean katekizatu izanik (orduak bai katekistak orduak, eta Luistarrak, eta Mariarenalabak eta ostiantzeko guztiak ...), zai egon naiz honelako gai bati noiz helduko. Baina Pamiela argitaletxeak Saiakera Saria antolatu berri du eta horretarako utzi beharko nere erretolika (milo bat jokuan!).

PEKATUA. Artzain onak, berak (txakurra lagun) gidatzen du artaldea. Bere ardura da artaldearen zaintza eta uztiapena. Eta garaia heltzen denean berak hartzen ditu zainpean arkumeak, ez du ardi eta ahariengan uzten biheleku hori. Baina tira, aspalditxo Artzaina & Artaldea bikotea parabolatan arrakastatsua suertatu bazen ere -katedrale bat ere eraiki zioten lehenari, atera kontu-parabolen garaia atzean utzi eta parabolikoen garaian bizirik gairen hariari beste nonbaitetik heldu beharko diot.

AITORMENA. Nere burua apostatatzen dut eta egia esan Eliza kontuen berri ez dut aspaldion. Honela izanik nola hartuko dut ba jarrera jakin bat gaur egun katekesia zertan den jakin barik?. Galdera luzatu dut eta hona jasotako erantzuna: Lehenengo Jaunartzerako prestakuntza.

BARKAMENA. Niretako aurreko erantzuna "FIAT LUX" Kreaziorako bezalakoa izan da : abiapuntua eta itzal guztien ezabatzailea. Orain ozenki bota dezaket: katekesiak ematea ez dagokio abadeari. Ez eta borondate oneko katekista talde bati. Ez eta gurasoei. Nori ba orduan?.

PENITENTZIA. Lehenengo Jaunartzearen bilakaera eta gaur egun hori zer dan azterturi (traje berria hartzailearentzako eta gurasoentzako, erreportaia -argazki eta bideoa- oroigarriak, opariak, banketea, etab. ...) garbi dago sakramentu zena ekintza sozial bihurtu dela eta ez merkea, beraz katekesiak gurasoentzako beharko lirake sakramentua zer dan ikas dezaten edo bestela protokolo eta finantz aholkulariak katekesiak emateko.

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokitzuz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jone eta Jojo gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiak ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezazkiezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskal-herria.com

Ekuador, Inma eta Marian inkek utzitako arrastoen atzetik

Ekialde urrunean zehar, Ze Barriko orrialdeen bitartez gerturagotu genizuen Vietnameko lurraldean eginiko bidaiko oroitzenak oraindik oroimenean fresko dituztela harrapatu ditugu Inma Lapuente eta Marian Garai eskoriatzarrak azaro bukaera honetan. Vietnamera joanda gaude baina, eta orain urtebete pasatxo Hego Amerikan zehar egindako bidaia izan dugu hizpide beraiekin. Argentinan, Txilen eta Bolivian egon gara jadanik, ezagut dezagun orain Inken inperioa zenaren bihotza. Hau da, Ekuador.



Haur quechua bat bere amaren bizkarrean Latacungako azokan. Ekuadorko 11 milioi biztanletatik %40a baino gehiago dira indigenak, ia guztiak quechuak.

Hogeiabost orduko bidaia Honektsuaren ondoren heldu ziren Inma eta Marian Quitora iazko abuztu hasieran; arrazoia, nola ez, maiz bidaiatu denak seguru aurkitu dituen hegaldi arazoak. Madriletik irten eta Milan eta Bogotan eskala egin ondoren, gaez heldu ziren biak Quito hiriburura, hasieran pentsatu zutena baina lau ordu beranduago. Garai nahiko mugitua izan zen gainera orain dela urtebetekoa Ekuadorren, indigenak mobilizazioetan murgilduta baitzebiltzan beraien eskubideen defentsan. Horrez gain, gobernua epaituak izan gabe urtebete baino gehiago kartzelan emana zuten preso guztiak askatzea erabaki zuen espetxeetako bizibaldintza tamalgarriak arindu nahian.

Hala ere, Hego Amerikako hiri lasaienetakoa batera heldu ziren Quitora iristean. Atari bakoitzean zaintzaile bana eta lehenengo pisuetako ate eta lehioak barrotez estalita dauden arren, hiri abegikorra da Quito geure lagunek kontatu digutenez. Aireportua hiritik oso gertu dago, ia hirian bertan, eta bere kolonial erako etxeak hiriak handitzerakoan hartu duen estilo modernoarekin kontrastatzen du. Hiriburua Quito izan arren, Guayaquil da nazio hontako hiririk handiena, pazifikoko kostaldean. Hala ere, hiriburua bera abiapuntu ona da, Inma eta Marianek bezala autobusa hartu eta Hego Amerika osoa zeharkatzen duen errepide panamerikarrean zehar bidaiatzeko.

Bertako jende xeheak erabiltzen dituen garraioak erabiltzea da askotan herrialde bat ondoen ezagutzeko modua, eta Hego Amerika osoan bezala, jendez eta anekdotaz lepo dihoaz autobusak Ekuadorren ere. Pertsona, traste eta etxeko abereren bat edo besteren artean, hegoalderantz jo zuten Marian eta Inmak, batzuetan

Jende xeheak erabiltzen dituen garraiobideetan ibiltzea da herrialde bat ondoen ezagutzeko modua, eta Hego Amerika osoan bezala, anekdotaz lepo dihoaz autobusak Ekuadorren ere

errepide den eta beste batzuetan hainbestera heltzen ez den ardatz hontan zehar. Horrela ezagutzen hasi ziren sumendiz eta bere iragan Inka gogorarazten duten indigenez betetako lurraldea.

Latacunga, merkatua sumendiaren itzalpean

Cotopaxi sumendiaren magalean jaio eta hiru aldiz bere suak errea izan den Latacunga hiria izan zen beraien lehenengo geltokia. Ekuadorren txoko guztietan aurki daitezkeen merkatuetatik ikusgarrienetakoa da Latacungan zapatu



Marian eta Inma Cotopaxi sumendiaren inguruko laku ugarietako batean.

goizetan egiten dena. Handik gertu dagoen Saquisilí herrian ere, indigenek trukea erabiltzen dute oraindik ere beraien salerosketetan. Paisaia berriz, menditsua da hemen, eta eguraldia, freskoa, ia Ekuador osoan zehar bezala –Quito hiriburua bera 2.800 metrotik gora dago–.

Itzalitako sumendien ahotan lakuak sortzen joan ziren Latacunga inguruan, eta mendi ibilaldi oso ederrak egin daitezke oraindik ere bizirik dagoen munduko sumendi altuena den Cotopaxi elurtuaren

magalean. Hotel bateko jabea zen emakume bat lagun zutela ezagutu zituzten hauetako batzuk, bere ur termalei esker famatua den Bañosera lehendabizi, eta gero hegoalderago Cuencako hiri kolonial ederrera jo aurretik; esan zigutenez, Cuenca da Ekuadorreko hiririk aberats, elegante eta abegikorrena.

Kostaldean ere ibili ziren, Atacamas hiriaren inguruan. Garai txarrak ziren gainera haiek kosta partean, “El niño” izeneko fenomeno klimatikoaren ondorioz sortutako ekaitzek dena txiki-txiki eginda utzi baitzuten urtebete lehenago. Ekuadorrera jotzen duen bidaiari askok, Galapago uharteetara doazen hegaldiak hartzen dituzte Darwin zientzilari britaniarraren “laborategi” izandako irla hauetara heltzeko. Hemen bizi diren animalia espezie bereziak ikuskatuz heldu zen Charles Darwin eboluziaren teoriaren oinarriak jartzera. Galapagoetara jo beharrean baino, iparraldera jo zuten Marian eta Inmak, Otavalo izeneko herrira, Quitora bueltan joan aurretik.

Behin Quitora itzulita, Euskal Herrirantz bueltan ekarriko zituen hegazkina, oraingoan atzerapentik gabe, hartzea besterik ez zuten Inma eta Marianek etxera bueltatzeko. Hurrengo bidaia prestatzen hasteko ordua zen jada.



Europatik heldutako zuriak konkistatzaileen ondorengotzat hartzen dituzte oraindik ere Ekuadorko indigenek.

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

* Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, Gazte Bulegoan emango dizugu paperak tramitatzeke behar duzun informazioa.

TXARTELAK

* Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

IKASTAROAK

* Emakumeentzako soldadura ikastaroa, emakume langabeei zuzendua. Ikastaroa Oñatin izango da, Azaroan hasita eta Martxorarte, goizez.

* Geriatria ikastaroa emakume langabetuei zuzendua. Arratsaldez izango da ikastaro hau. Epea: azaroak 30.

* Ekin Emakume elkarteak "norberaren irakurketa" ikastaroa antolatu du, euskarazko testuak irakurtzeko trebatasuna hartzeko. Ikastaroa azaroa eta abendua bitartean burutuko da, arratsaldeko 3etatik 4.30ak arte.

* Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak "Hastapena eta segurtasuna goi mendian" ikastaroa, abenduaren 2 eta 3an Tena bailaran burutuko dena.

LANA

* Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez Gazte Informazio bulegotik.

DIRULAGUNTZAK

* Estatuko Gobernuak graduatu ondoko prestakuntzarako 14 beka, zuzenbide, marketinga, lege testuak eta arte grafikoen inguruko prestakuntza ikasketak burutzeko. Epea: abenduak 2.

* Bilboko Arte Ederretako Museoan ikasketak edo ikerketak burutzeko dirulaguntzak. Epea: abenduak 22.

LEHIAKETAK

* Sestaoko Gaztelekuak, irudi eta ipuin fantastiko lehiaketa antolatu du. Euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako lanak, gai libre baina fantastikoa (errealitatetik kanpo gertatzen den edozein fikzio mota) eta 5-10 orrialdetako luzeran idatziak (ipuinak). Epea: abenduak 1.

* Artista Berrien Lehiaketa. Arte plastiko eta ikusentzunezkoen alorreko lanak sarituko dira. 18-30 urte bitartekoei zuzenduta, aurrez saritu gabeko lanak, diapositiba edo bideo formatoan aurkeztu beharko dira. Epea: abenduak 15.

* Musika Lehiaketak. San Adriango pop-rock sariketa, Villa de Bilbao sariketa eta Gazte Leiho euskal sorkuntza gaztea plazaratzeko maketa lehiaketa.

* Portugaleteko 15. Komiki Lehiaketa. Gaia libre, zuri-beltzean edo koloretan eta 4 orrialdeko luzerako lanak. Epea: urtarrilak 31.

* AED Elkarteak XIV. Arrasate Lehiaketa antolatu du, ipuina, poesia, bertso paperak, komikia, euskalki grabazioa eta irrati erreportajea modalitateetan. Epea: otsilak 5.

JAIOTZAK

- Asier Iriarte Murgiondo



ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskaltegia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-714688
Kiroletxea.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetzeta	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan

Abenduaren 1etik aurrera,



zure eskura.



DEBAGOIENeko ASTEKARI BERRIA

PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Nissan Primera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila: aldibelgoibar@nortekar.com